



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko azaroaren 22a

137. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Polizieiei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Moderna Fundazioa entitate publiko bihurtzeko. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da jarrera proaktiboa izan dezan eta lan egin dezan Nafarroan izaera publikoko osasun ikerketarako institutu bat kreditatzearen alde. Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da legebiltzarrerara igor dezan 2013ko ekainaren 26ko mozioan eskatu zitzaion plana, Nafarroako egileek sortutako musika ezagutzera emateari buruzkoa. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak azaltzen baitu autogobernuaren aurkako esku-sartzetat jotzen duela Espainiako Gobernuak sistematikoki errekurtsioak aurkeztea Nafarroako lege eta arauen aurka. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berresten baitu onetsi zuen adierazpen instituzionala, Foru Komunitateko lehendakariak jasandako erasoa gaitzestekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna erakusten baitie Filipinetako tifoian kaltetutako pertsonen. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Esako Lasaitasuna urbanizazioan izandako kalteen konponketari buruzkoa, Maite Esporrín Las Heras andreak egina (12. or.).
- Galdera, Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegiaren kudeaketa-plana zehazteko lan-mahaia-ri buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egina (13. or.).
- Galdera, Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaiari buruzkoa, Eloy Villanueva Cruz jaunak egina (13. or.).
- Galdera, herritar-txartela ezartzeari buruzkoa, Maite Esporrín Las Heras andreak egina (14. or.).
- Galdera, Euskarabideak egiten dituen ikerketa soziolinguistikoei buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (15. or.).
- Galdera, Residen-en zehazten diren pertsona erabiltzailearen profil berriei buruzkoa, Bikendi Barea Aies-taran jaunak egina (15. or.).
- Galdera, 2013 ko urriaren 18ko 352/2013 Foru Aginduari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (16. or.).
- Galdera, AP-15eko 50. irteeran (iparra) “Estella-Lizarra” seinalizazioa paratzeari buruzkoa, Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egina (17. or.).
- Galdera, Plazaolaren geltokia zaharberritzeko Leitzako Udalak aurkeztutako proiektuari buruzkoa, Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egina (17. or.).
- Galdera, kreditu-aseguramenduetan espezializaturiko enpresei eta horiek Nafarroako enpresen finan-tzaketan duten eraginari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (18. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 139. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsitako irizpena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari buruzkoa. Proposamen hori 2013ko ekainaren 10eko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpenari buruz ez da zuzenketarik mantendu, ezta boto partikularrik egin ere.

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

IRIZPENA

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak 2013ko azaroaren 13an egindako bileran onetsia.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean arautzen da, besteak beste, entitate publikoek eginiko herrilur-aprobetxamendua. Aprobetxamenduen prezioak urtero eguneratzeko bi adierazle aipatzen dira: KPI eta nekazariak eta abeltzainek jasotzen dituzten prezioen indizeak.

Nafarroako Gobernuak, urtarrilaren 15eko 14/2013 Foru Aginduaren bidez, Nafarroan 2012. urtean nekazariak eta abeltzainek jasotako prezioen indizeetan izan diren urtetik urterako aldaketak ezarri zituen.

Aipatu foru aginduan informazio estatistikoa ematen da, Nafarroako nekazariak eta abeltzainek nekazaritzako produktuengatik ekitaldian jasotako prezioen indizeetan izan diren aldaketa tasei buruz.

14/2013 Foru Agindua dator Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea betetzetik. Izan ere, aipatu legearen 27. artikulua agintzen du hura erabili behar dela Nafarroako toki entitateek nekazaritza, abeltzaintza eta oihangintzan egindako herrilur-aprobetxamenduen urte anitzeko errentamenduen prezioaren urteroko eguneratzean.

Aipatu artikulua gehitzen du ezen herrilurren gainerako aprobetxamenduetan, urtebete baino iraupen luzeagoa dutenean, eguneratze hori egin dela kontsumoaren gaineko prezioetan erakunde ofizial eskudunak Nafarroarako onesten duen gorakadaren ariora.

14/2013 Foru Aginduan jasotzen den nekazaritzako produktuen gorakada ehuneko 15,11 da, eta kasuen araberako aldaketak ehuneko 4,5etik ehuneko 37ra artekoak dira; animalia produktuetan gorakada ehuneko 9,36 da, eta aldaketak, produktuen arabera, ehuneko -7,7tik ehuneko 10era artekoak; zuraren kasuan ezartzen den gorakada ehuneko 3,24 da. Era horretan, 2012. urterako ezartzen den gorakada ehuneko 12,1 da.

Iragandako denboragatik eta nekazaritza, abeltzaintza eta oihangintzan egindako herrilur-aprobetxamenduak eguneratzea aplikatzeak erabiltzeak sortu dituen eraginengatik, beharrezkoa da eguneratze formula egokitzea.

Halatan, 2/1995 Foru Legeak jadanik berak aukera ematen du eguneratzea KPIren bidez egiteko, eta adierazle hori egokiagoa eta bidezkoagoa da gaur egun.

Izan ere, Nafarroako Aldizkari Ofizialak berak erakusten du, 2013. urtean zehar, nafar udalek bi

aukerak erabiltzen dituztela herrilur-aprobeta-
txamenduei buruzko udal ordenantzetan. Alegia,
batzuetan eguneratze-oinarritzat KPI hartzen da
(gehienetan zehaztu gabe adierazlea Nafarroakoa
edo Espainiakoa den), eta beste batzuetan erabil-
tzen den formula da lehen sektoreko produktuen
aldaketa. Egoera honek aholkatzen du irizpide
bateratua ezartzea, herrien artean desberdintasu-
nik sor ez dadin.

Artikulu bakarra. 27. artikulua aldatzen da.
Hona testu berria:

"Aprobetxamenduaren iraupena urtebete baino
luzeagoa denean, behar diren ordenantzetan edo
baldintza-pleguetan klausula bat jarriko da,
aprobetxamenduaren kanona edo prezioa urtero
eguneratzekoa, kontsumoaren gaineko prezioetan
erakunde ofizial eskudunak Nafarroarako onesten
duen gorakadaren ariora".

Azken xedapen bakarra. Foru lege honek
Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta
biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artiku-
luan ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuari
eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko
14/2004 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege
proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarro-
ako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara
daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2013ko
ekainaren 24ko 72. Nafarroako Parlamentuko
Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarra aldatzeko zuzenketa, 14/2004
Foru Legearen 62. artikuluko 2. puntua honela ida-
tzita gera dadin:

2. Gizarte-, lan-, etxebizitza-, osasun- eta
hezkuntza-politikei buruzko erregelamenduzko
xedapenen proiektuek gizarte kohesioari buruzko
txosten bat jaso beharko dute, non ebaluatuko
baita nolako eragina edo ondorioak izan di-

tzaketen xedapen horiek gizarteko sektore ahule-
nengan.

Zioak: Izugarri handiak dira erregelamenduzko
xedapenen ugaritasuna eta aniztasuna, eta asko-
tan hutsal gertatzen da gizarte-eraginari buruzko
edozein txosten eskatzea.

2. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

14/2004 Foru Legeko 62. artikulua aldatzen
duen artikuluko bakarreko 3. idatz-zatia kentzeko
zuzenketa.

Zioak: Saihestu beharra dago gehiegizko buro-
kratizazioaren arriskua, edozein administraziotan
beti egoten dena, eta bikoiztasunek arrisku hori
ekartzen dute. Gobernuak zerbitzu juridiko zentra-
lizatu batzuk dauzka, eta, gainera, departamentu
bakoitzean ere zerbitzu juridikoak dauzka. Horien
helburua da, noski, aztertzea eta zaintzea arau
guztiak antolamendu juridikoari egokitzen zaizkio-
la. Horrenbestez, proposatutako 3. puntua errep-
kapen bat izanen litzateke.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2013ko abenduaren 10eko eguerdiko hamabiak arte**

luzatzea. Aipatu foru lege proposamena 2013ko abuztuaren 28ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Moderna Fundazioa entitate publiko bihur dezan.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Belrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Moderna Fundazioa entitate publiko bihur dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Belrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernua Moderna Fundazioa entitate publiko bihurtzera premiatzen duena, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko.

Parlamentu-talde Popularrak Moderna Fundazioari buruzko hainbat galdera egin dizkio Nafarroako Gobernuari legegintzaldian zehar. Administrazioak emandako erantzunak mugatuak izan dira edukiari dagokionez, entitate hori fundazio pribatu bat delako argudioa eman baitu Administrazioak.

Nafarroako Gobernuak Moderna Fundazioaren estatutuak onetsi zituen 2010eko abenduan, eta fundazioa 2011ko martxoan eratu zen. Estatutuak berek ezartzen dute fundazioa izaera pribatukoa dela. Entitate eratu zen Moderna Plana izenekoa bultzatzeko; hots, Nafarroaren erregio-garapeneren estrategia.

Kontuen Ganberak orain dela gutxi aurkeztu du Moderna Fundazioaren 2008tik 2012ra bitarteko jarduerari buruzko fiskalizazio txostena. Fundazioaren izaera da dokumentuan jasotako alderdie-tako bat.

Halatan, fiskalizazio organoak hauxe dio hitzez hitz: "Horregatik, fundazio pribatu gisa eratu dagoen arren, bat gatoz Nafarroako Parlamentuko zerbitzu juridikoekin, bi txostenetan adierazi baitute 'fundazio publiko gisa eratu' behar zatekeela". Kontuen Ganberak azpimarratzen du fundazioaren helburua sektore publikoaren jardura tipiko bat dela: Nafarroaren erregio-garapeneren estrategia bultzatzea.

Kontuen Ganberak orobat dio Moderna Fundazioa sektore publikoan sartzeak ez duela ondorio nabarmenik edukiko: "Azpimarratu behar da, hala ere, fundazioak ez duela ez zorrik ez defizitirik; beraz, hura sektore publikoan finkatzeak ez luke eragin nabarmenik izanen, haren gastuak Nafarroako Gobernuko Kontu-hartzailetzak kontrolatzen ditu zeharka, eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-pean dago".

Txostenak halaber azpimarratzen du 2012an 1,1 milioi eurokoa zela fundazioaren hasierako aurrekontua, eta zatirik handiena –zehazki, milioi bat– Nafarroako Gobernutik zetorrela. Ganberaren gomendioan artean jasotzen da beharrezkoa dela entitate pribatuak fundazioaren jardueren urteroko finantzaketan inplikatzeko.

Horregatik guztiagatik:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Moderna Fundazioa entitate publiko bihur dezan sei hilabeteko epean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Ana Belrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da jarrera proaktiboa izan dezan eta lan egin dezan Nafarroan izaera publikoko osasun ikerketarako institutu bat kreditatzearen alde.

MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita jarrera proaktiboa izan dezan eta lan egin dezan Nafarroan izaera publikoko osasun ikerketarako institutu bat kreditatzearen alde.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak eta Patxi Leuza García jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 196. artikuluan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Osasun-esparruan, ikerkuntza ezinbestekoa da bikaintasun-mailak lortzeko Osasun Sistema Publikoaren kalitatea etengabe hobetzearen bitartez.

Nafarroako Osasun Ikerketaren Plan Estrategikoan, zeina 2007an onetsi baitzen, Nafarroako Gobernuak ondokoei eman zien lehentasuna:

- a) Ikertzaile-masa kritikoa areagotzea.
- b) Nafarroarentzako funtsak hartzeko maila areagotzea.
- c) Ikerketaren kudeaketa eta zuzendaritza estrategikoa hobetzea.
- d) Gaur egungo ikerketa-ildoak handitzea eta egokitzea.
- e) Plataforma teknologikoen sustapena.
- f) Ingurunean aliantzak sortzea, ikerketaren arloko kalitatea hobetzera bideratuak.

g) Ezagutzaren hedapena hobetzea.

Bestalde, Nafarroako Osasun Arretaren Eredua garatzeko Estrategiaren barruan, Nafarroako Gobernuak beste hiru proiektu estrategiko ditu ikerketarekin zerikusi zuzena dutenak; horien artean, Osasun Ikerkuntzaren Institutua.

Osasun ikerkuntzaren institutuak sortu dira Osasun Sistema Nazionalako irakaskuntza- eta ikerketa-ospitaleak unibertsitateekin eta bestelako ikerkuntza-zentro publiko eta pribatuarekin elkar-tzetik, kalitate goreneko ikerkuntza egiteko xedez. Horien helburuen artean dago "kalitatezko laguntza-, irakaskuntza- eta ikerkuntza-ingurune bat sortzea, graduiko ikasleentzat, prestakuntzan dauden espezialistentzat eta osasun arloko profesionalentzat".

Osasun Ikerkuntzaren Institutua abian jartzea eta kreditatzea aukera handi bat izan daiteke ONOZentzat, bai ikerkuntza-jarduera desiragarri/hobezina lortzeko, bai bere kalitatea eta irakaskuntza-ahalmena hobetzeko. Aukera emanen luke, orobat, Nafarroako osasun- eta unibertsitate-erakunde nagusien arteko aliantza indartsu eta egonkor bat formalizatzeko eta ezbaierik gabeko onurak ekartzeko. Ikerkuntzarako funtsak lortzeari begira, garrantzitsua da Osasun Ikerkuntzaren Institutuko kidea izatea; izan ere, Carlos III.a Institutuak berariazko finantzaketak ezartzen ditu kreditatutako instituentzat, etorkizunean handituko bide direnak.

2009ko maiatzean jada, Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi zuen mozio bat, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatu baitzuen "Osasun Ikerkuntzako Institutuak kreditatzeari buruzko 339/2004 Errege Dekretuan xedatutako helburu eta printzipioei jarraikiz, Nafarroako ospitale publikoek eta eraikitze-, sortze- eta antolatze-prozesuan dagoen Nafarroako Ikerketa Biomedikorako Zentroak beharrezkoak diren lotura juridikoak ezar ditzaten Carlos III.a Osasun Institutuari atxikia egonen den osasunaren arloko ikerketa institutu kreditatu bat sortzeko, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen 48. artikulua arabera".

Antza denez, 2012ko udaberritik aitzina, Nafarroako Foru Komunitateko osasun- eta uniber-

tsitate-erakunde nagusiak lanean ari dira fundazio bat eratzeko, ondoren Nafarroako Osasun Ikerkuntzaren Institutu bat kreditatzeko. Nafarroako Osasun Ikerkuntzaren Institutuko kide izatera egun deitutako eragileak dira Osasun Departamentua bera, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Nafarroako Ospitalegunea, Nafarroako Unibertsitate Klinika eta Nafarroako Unibertsitatea.

Oraindik ez dira adostu Nafarroako Osasun Ikerkuntzaren Institutua eratzeko oinarriak, batez ere ez delako adostasunik lortu Patronatuaren osaketari dagokionez, institutuaren zuzendaritza-eta administrazio-aginte goren.

Patronatuaren eraketa ez da inolako huskeriat; izan ere, horren arabera da Nafarroako Gobernuak etorkizunean ahalmena edukitzen jarrai dezan, ala ez, Nafarroako ikerkuntza biosanitarioren plan estrategiko publikoen diseinuari eta zuzendaritzari dagokienez.

Jorratu den azken proposamenean, berberak dira Nafarroako Unibertsitateari eta Unibertsitate Klinikari esleitutako ordezkarien batura eta NUPi eta Osasun Departamentua-Nafarroako Ospitaleguneari esleitutakoa (ez dira aintzat hartzen osasun sistema publikorako funtsezkoak diren beste eragile batzuk; esaterako, oinarrizko osasun laguntza), eta orobat proposatzen da muntako erabakiak gehiengo kualifikatu bidez hartzea.

Ematen du eska daitekeen gutxienezkoa dela Osasun Departamentuak nahi izatea zuzendaritza organoetan dagokion pisuaren arabera ordezkari kopuru bat edukitzea, interes kontrajarriak adoste aldera eta interes komuna bermatze aldera. Oro har, autonomia erkidegoetako gobernuek garrantzizko ordezkari bat zuzena dute egun kreditatutako institutuak gobernuko organoetan; izan ere, funts publikoak jasotzen dituzten entitateak dira, osasun sistema publikoaren kalitatea eta efizientzia, bere

prozesuak eta adierazleak eta bere prestazioak hobetzera bideratutako ikerkuntza egin dezaten.

Nafarroan, gainera, auzi honek garrantzi berezia hartzen du, solaskide pribatuen –Nafarroako Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitate Klinika– dimentsio, jardunbide eta baliabideei erreparatuz gero. Funtsezkoa da eremu publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak oinarri sendoak izatea, eta oinarrizko baldintza izatea adostasuna lortzea, baina betiere ziurtaturik botere publikoek, eta ez bestek, hartu ahalko dituztela Osasun Ikerkuntzaren Institutuaren jarduna ezartzeko erabakiak eta ezarri ahalko dituztela horretarako ildo estrategikoak eta ikuskera, baldin eta gatazka konponezina sortzen bada eta, ondorioz, akordiora iristerik ez badago.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du jarrera proaktibo bat har dezan eta Nafarroako osasun ikerkuntzaren institutu bat, izaera nagusiki publikokoa, kreditatzearen alde lan egin dezan.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du ordezkari publiko gehiengo nahikoa berma dezan (Osasun Departamentua, Nafarroako Ospitalegunea, NUP, beste eragile publiko batzuk) etorkizuneko institutu kudeatuko duen patronatuan, halako moduan non, eragile pribatuekin adostasunik lortzerik ez dagoen kasuetan, botere publikoek erabaki garrantzitsuak hartu ahal izanen baitituzte, batik bat institutuaren plan zientifikoa eta plan estrategikoa onesteari eta aldatzeari buruzkoak.

Iruñean, 2013ko azaroaren 7an

Foru parlamentariak: Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuz García

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legebiltzarrerara igor dezan 2013ko ekainaren 26ko mozioan eskatu zitzaion plana, Nafarroako egileek sortutako musika ezagutzera emateari buruzkoa.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita legebiltzarrerara igor dezan 2013ko ekainaren 26ko mozioan eskatu zitzaion plana, Nafarroako egileek sortutako musika ezagutzera emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Roberto Jiménez Alli, Socialistas de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, presako prozeduraren bidez kasuko batzordean eztabaidatu eta bozka dadin. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da igor dezan Legebiltzarrerara Nafarroako autoreek sortutako musika ezagutzera emateko 2013ko ekainaren 26an onetsitako mozioan agindutako plana.

Legebiltzarrak, 2013ko ekainaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Socialistas de Navarra parlamentu-taldearen mozio bat onetsi zuen –29 boto alde, eta 15 abstentzio–. Mozioaren bidez, Gobernua premiau zen Nafarroako autoreek sortutako

musika ezagutarazteko plan bat idatz eta abian jar dezan.

Mozioaren 2. puntuak honela zioen, hitzez hitz: "Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aipatu plana irailaren 30a baino lehen aurkez dezan Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean, han jasotako jarduketetako batzuk aurreikuste aldera 2014ko aurrekontuan eta erkidegoko musika-entitateekin sinatu beharreko deialdi eta hitzarmen berrietan".

2013ko azaroaren 14an, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak erantzun zuen, horri buruz galdetu zitzaionean, mozioan aurreikusitakoaren arabera egiten ari zirela departamentuaren programa guztiak. Uler-tzekoa zen, beraz, ekimen hori behar bezala gauzatzen ari zela.

Hori guztia ikusita, Parlamentu honek ondoko erabaki proposamena onesten du:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du al bait azkarren aurkez dezan, eta betiere abenduaren 31 baino lehen, Legebiltzarrak 2013ko ekainaren 26an onetsitako mozioan agindutako plana. Plan horrek ez dakar nahitaez aurrekontu-esleipena handitzea, baizik eta dauden baliabideak aprobeztatzea Nafarroako egileek sortutako musikaren presentzia handiagoa lortzeko.

2.- Nafarroako Parlamentuak bere nahigabea adierazten du Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako kontseilariaren jokabide tematia dela-eta –ez ditu betetzen Legebiltzar honek onetsitako erabakiak–, eta beretzat gordetzen ditu Parlamentu honek onetsitako erabakiak betearaztearren Erregelamenduak jasotako tresna guztiak erabiltzeko aukera.

Iruñean, 2013ko azaroaren 14an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak azaltzen baitu autogobernuaren aurkako esku-sartzetzat jotzen duela Espainiako Gobernuak sistematikoki errekurtsioak aurkeztea Nafarroako lege eta arauen aurka.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du autogobernuaren aurkako esku-sartzetzat jotzen duela Espainiako Gobernuak sistematikoki errekurtsioak aurkeztea Nafarroako lege eta arauen aurka.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du oso larria dela Espainiako Gobernuak jokabide hori baliatzea, Nafarroako Gobernuarekin elkar hartuta.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko

neurri urgenteei buruzko 24/2013 Foru Legearen aurka Espainiako Gobernuak aurkeztutako errekurtsioan pertsonatzeko asmoa duela.

4. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak Konstituzio Auzitegian defendatzea errekurritutako foru lege hori, bai eta bere indarraldiaren etetea bertan behera uztearen aldeko jarrera ere, eta Gobernu zentralari exijitzea errekurtsioa ken dezan".

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berresten baitu onetsi zuen adierazpen instituzionala, Foru Komunitateko lehendakariak jasandako eraso gaitzestekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak, Foru Erkidegoko herritarren borondatearen ordezkari-erakundea den aldetik, ondokoa onetsi du:

1. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du 2011ko urriaren 27an egindako Osoko Bilkuran

onetsi zuen adierazpen instituzionala, zeinaren bidez gaitzesten baitzuen Foru Komunitateko lehendakari Yolanda Barcina andreak jasandako eraso".

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna erakusten baitie Filipinetako tifoian kaltetutako pertsoneri.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"1.- Nafarroako Parlamentuak elkartasuna erakusten die Filipinetako makro-tifoian kaltetutako pertsona guztiei.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako herritar guztiak eta bereziki Nafarroako Gobernua

premiatzen ditu bere laguntasuna eskain diezaizten tifo horrek kaltetutakoei.

3.- Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du bere ahalegin guztia batzeko klima-aldaketaren ondorioak aztertu eta geldiaraztea bilatzen duten era guztietako ekimen instituzionaleri".

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Esako Lasaitasuna urbanizazioan izandako kalteen konponketari buruzkoa.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztutako galdera, Esako Lasaitasuna urbanizazioan izandako kalteen konponketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Sustapen Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Sustapen Batzordean ahoz erantzun dakion:

Asko dira otsailean Esako Lasaitasuna urbanizazioa utzi behar izan zuten egoiliarak, beren etxebizitzak dauden mazelan hautemandako lur-lerradurak direla-eta. Haietako batzuek beren etxetara itzultzeko baimena lortu duten arren, beste askok oraindik ere debekatuta daukate itzultea, eta horrek ageriko kaltea eragiten die.

Etxebizitza batzuek kalte larriak dituzte beren egituretan –horietako batzuk, konponezinak–; halatan, pitzadurak agertu dira ez soilik hormetan, ezpada kaleetan ere, mazela irristatu izanak eta egindako hondeaketek eraginda, nonbait.

Etxebizitza horien jabeak pairatzen ari diren kalte horiek guztiak ikusita, ondokoa jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren aitzinean, edo dagokionaren aitzinean, ezer egiteko, eragindako kalteak konpontzearen eta pertsona horiei laguntzearen?

Iruñean, 2013ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Galdera, Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegiaren kudeaketa-plana zehazteko lan-mahaiari buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegiaren kudeaketa-plana zehazteko lan-mahaiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Gizarte Politiketako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Noiz deituko da Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegiaren kudeaketa plana zehaztu behar duen lan-mahaia? Nork osatuko du mahaia?

Iruñean, 2013ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaiari buruzkoa.

ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaiari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Sustapen Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak, 2005eko azaroaren 7an egindako bilkuran, Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaia sortu eta arautzen zuen foru dekretua onetsi zuen.

Entitate hori aholkularitza- eta partaidetza-organo gisa sortu zen, erakundeek eta gizarte-eragileek mugikortasunaren inguruko problematikak eztabaida zitzaten eta laguntza eman zezaten Iruñerriko garraio publiko eta pribatu iraunkorraren segimenduan eta sustapenean. Mahaia Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari atxiki zitzaion. Departamentu haren eskumenak Sustapen Departamentuaren esku daude gaur egun.

Nafarroako Gobernuak bere garaian informatu zuen organo aholku-emaile horrek gutxienez sei hilean behin bildu behar zuela. Mahaiaren eginkizunen artean zegoen mugikortasunaren bilakaeraren berri izateko erreferentzia izatea, garraio politikak taxutzerakoan oinarri gisa balio izateko.

Bestalde, 2006ko martxoan Mahaia eratzeko egindako bileran erabaki zen Mugikortasunaren eta Garraioaren Behatokia sortzea.

Eskueran dugun informazioa ikusita, hauxe jakin nahi dut:

Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaiak egindako bileren zerrenda, mahaia eratu zenetik galderari erantzun zaion egunera bitarte.

Zerrenda hori urtez urte ematea eskatzen da, ondokoak zehaztuta: bileraren data, eztabaidatutako gaiak eta hartutako erabakiak.

Informazio bera eskatzen da behatokiari dago-kionez. Mahaiaren eta behatokiaren egungo osae-ra.

Iruñean, 2013ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Galdera, herritar-txartela ezartzeari buruzkoa.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak herritar-txartela ezartzeari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaria, Justizia eta Barneko kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Herritar txartela oso baliagarria da, identifikatzeko aukera ematen duelako zenbait zerbitzu

jasotzeari begira; esate baterako, kiroldegietara, udal igerilekuetara, gizarte-etxeetara eta eraikin publikoetara sartzea. Halaber, aukera ematen du ordaintzeko hiri garraioa eta bizikleten alokairua, Nafarroako liburutegi publikoen sarera sartzeko, eta abar.

Horrekin, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak tokiko zerbitzu publikoen kalitatea eta berrikuntza garatu zituen. Hori dela-eta, 2001etik aitzina, toki entitateek eskaintzen dituzten zerbitzuetan kreditatzeko sistema komun hori sustatu zuen, eta Nafarroako Gobernuak finantzatzen zuen txartel hori.

Orain dela gutxi, udalek eta beste entitate batzuek Nafarroako Gobernuaren jakinarazpen bat jaso dute, zeinean informatzen baitu ez dela txartel horren ordainketaz arduratuko hemendik aurrera, finantza-arrazoiak direla-eta, eta entitate bakoitzak egin beharko duela zuzenean hori.

Informazio hori ikusita, ondoko galdera egiten dut, idatziz erantzun dakidan:

Herritar txartelaren ezarpenak zer kostu ekonomikoko ekarri dio gaur arte, urtean, Nafarroako Gobernuari?

Iruñean, 2013ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Galdera, Euskarabideak egiten dituen ikerketa soziolinguistikoei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Euskarabideak egiten dituen ikerketa soziolinguistikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamen-

duak diotenari jarraiki, Nafarroako Gobernuari honako galderak helarazten dizkio, idatziz erantzun ditzan:

Euskarabidearen betekizunetako bat euskaren gaineko azterlanak, ikerketak eta estatistikak sustatzea da, baita haiek argitaratzea ere. Ildo horretan, Nafarroan egin zen azken azterlan soziolinguistikoa "Euskararen egoera Nafarroan 2008" dugu.

Hartara, bost urte pasa direla kontuan hartuta, jakin nahi dugu Euskarabidea bestelako azterketa soziolinguistikoetan lanean ari den, edo epe labur edo ertainean aurreikusia daukan halako beste azterlanik egitea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Residen-en zehazten diren pertsona erabiltzailearen profil berriei buruzkoa.

BIKENDI BAREA AiestARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, Residen-en zehazten diren pertsona erabiltzailearen profil berriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernu-ko organo eskudunari, idatziz erantzun diezazkion:

- Arau-aldaketaren bat egin behar al da, Residen-en zehazten diren erabiltzaile-profil berrien ondorioz?

- Nola zenbatuko lirateke, ratioei dagokienez, "mendetasun sozial"eko 65 urtetik goitiko pertsonak, ezgaitasuna eta mendetasuna duten 65 urtetik beheitiko pertsonak eta ezgaitasuna eta mendetasuna duten 65 urtetik goitiko pertsonak okupatutako plazak?

- Zer neurri hartuko dira, profil berriak dituzten pertsonak zahar-etxeetan egoteagatik sortzen diren beharizan berriei erantzuteko?

- Ba al dago edo sortuko al da prozedurarik erabiltzailea baloratzeko eta behar diren zerbitzu bereziak ezartzeko?

Zentroei exijitzen zaizkien ratioei dagokienez:

- Ratio berberak al daude zentro guztietan?

- Zentroren batean ba al da alderik, edo hala-korik gertatzea aurreikusten al da, Concerdep-ekin exijitutakoaren eta Residen-ekin exijitutakoaren artean?

Iruñean, 2013ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, 2013ko urriaren 18ko 352/2013 Foru Aginduari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak 2013ko urriaren 18ko 352/2013 Foru Aginduari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2013ko urriaren 18ko 352/2013 Foru Aginduari dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

1.- Blokeoak ukitutako kontusail-kopuru zehatza, departamentuen arabera zehaztuta.

2.- Blokeoak ukitutako kontusail guztietarako zer zenbateko oso dagoen 2013 guztirako aurrekontuan esleituta.

3.- Kontusail horietan 2013ko urriaren 18an beteta zegoen zenbateko osoa.

Iruñean, 2013ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, AP-15eko 50. irteeran (iparra) "Estella-Lizarr" seinalizazioa paratzeari buruzkoa.

MIREN JULIA ARANO A ASTIGARRAGA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, AP-15eko 50. irteeran (iparra) "Estella-Lizarr" seinalizazioa paratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

1. Nafarroako Gobernuak aurreikusita al dauka "Estella-Lizarr" paratzea AP-15 autobideko 50. irteerako (iparraldea) bide-seinalean?

2. Audenasak bide-seinale horri buruzko aholkurik eman al dio Nafarroako Gobernuari?

3. Audenasaren kudeaketa planetan ba al dago eskabiderik, bai Lizarrako Udalarena, bai enpresa edo partikularrena, 50. irteerako (iparraldea) bide-seinalean "Estella-Lizarr" aipamena gehitzeko? .

Iruñean, 2013ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

Galdera, Plazaolaren geltokia zaharberritzeko Leitzako Udalak aurkeztutako proiektuari buruzkoa.

MIREN JULIA ARANO A ASTIGARRAGA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, Plazaolaren geltokia zaharberritzeko Leitzako Udalak aurkeztutako proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

2010aren amaiera aldean, Nafarroako Gobernu Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetarako Departamentuko Turismoa eta Merkataritza Antolatu eta Sustatzeko Zerbitzuko zuzendari Fermín Villanueva jaunak iragarri zuen aurrera aterako zela Plazaolako geltokia zaharberritzeko proiektua, Leitzako Udalak Nafarroako Gobernuari aurkeztua, eta 2012an 150.000 euro inbertituko zirela, eta 2013an beste 150.000 euro. Udalararen proiektuan aurreikusten zen turismo bulego bat,

ostatu bat eta mendi-bizikleten zentro bat paratzea.

Gauzak horrela, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

1.- Zertan da proiektua une honetan?

2.- Nafarroako Gobernuak zer asmo du proiektu honi dagokionez?

Iruñean, 2013ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

Galdera, kreditu-aseguramenduetan espezializaturiko enpresei eta horiek Nafarroako enpresen finantzaketan duten eraginari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, kreditu-aseguramenduetan espezializaturiko enpresei eta horiek Nafarroako enpresen finantzaketan duten eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, idatziz erantzuteko:

Legebiltzarrak azaroaren 14an egindako Osoko Bilkuran 2013ko uztailaren amaieran erregistratutako ahozko galdera bat eztabaidatu zen,

kreditu-aseguramenduetan espezializaturiko enpresei eta Nafarroako gure enpresen finantzaketan duten eraginari buruzkoa.

Gobernuari eskatzen zitzaiona zen Frantzia ondo funtzionatu duen esperientzia bat balioets zezan, zeinean Estatuak estaldura-sistema osagarri bat ezarri baitzuen, enpresa txiki eta ertainei ahalbidetu ziena aseguru orokor bat eduki ahal izatea, krisia baino lehen zeukatenaren baliokidea.

Lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz emandako erantzunean, galdera honetan aipatzen ez den beste ekimen bat izan zuen mintzagai, eta parlamentari hau prest azaldu zen kontseilariari kasuko dokumentazioa emateko, azter zezan eta hortik ideien bat atera ote zitekeen ikus genezan, gure enpresei laguntzarren.

Informazio hori eskura eman zitzaion Osoko Bilkura horretan zehar.

Behin informazioa jasota eta argituta, galdera errepikatzen dut:

Frantzia baliatutako neurriaren moduko bat interesgarria izanen litzatekeela uste al du Gobernuak? Posible izanen al litzateke hori?

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

